



Kulto Kultibo taldea (Irun, Gipuzkoa) 2008an sortu zen rap-reggaea sustatzeko, abesteko eta kontzertuak eskaintzeko. Peca (mc), Samu (mc), Seta (dj) eta Aimar (soinu teknikaria) dira "kultibotarrak". 2008an estreinako maketa grabatu zuen taldeak (7 días). 2013ko abenduan autogestionatutako "Ahora o nunca" diskoa kaleratu zen. 2016an "La maceta" izenburua jarri zion Kulto Kultibo taldeak bigarren diskoari. 2018an 17 abesti igo zituzten on-line euskarrira, eta "La esencia" CD bilakatu dute 2019an ikusirik estatuko toki guztietatik eskatzen zitzaiola euskarri fisikoa. Hamaika kontzertu rap-reggae erritmoekin jendea pizteko eta harritzeko: Bartzelona, A Coruña, Alacant, Madril, Lleida, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Araba, Segovia, Castelo, Burgos, Toledo, Valladolid, Santander, Zaragoza, Vigo, Murtzia, Gijon, Palencia, Frantzia... Azken boladan, kantu berriekin batera klipak igo izan ditu sare sozialetara. Kulto Kultibo taldeak sona erruz irabazi du raparen eremuan eta estatuan erreferente bilakatu dira.

Kulto Kultibo taldearen hirugarren diskoan (La esencia) rapeatutako hitzei maiz jartzen zaie reggaearen oinarri laguntzailea. Kulto Kultibo taldearen rapa xumea da, zuzenekoetan entzungo diren bezala grabatu du, hurbilekotasunak ekarri dio ospea, eta estimua, ez da jendaila-musika, ez du jendaila hitzik, letra identitariok baliotzen ditu rap identitarioa egiteko, entzulea gertu eduki nahi du taldeak, eta distrakziorik gabeko testuetan bilatuko du mesfidantza sorraraztea botere guztien aurrean. Zupada eta zupada artean, eta funtsean, esentzia edo zerizana da raparen kultura aldarrikatzea. Musika eta rapa erabiliko du Kulto Kultibo taldeak sistemari kalteak eragiteko, ez du gogoko sistema menderatzailea betikotzen den eredu, filosofia horren defendatzaileak da.

INSTRULOOP

Diskoari hasiera ematen dion abestia da, eta Kulto Kultibo taldearen alderik hardcoreena ageri da. Bideoklipak erakusten digu irudietan errimak eta erreferentziak nolakoak diren.

VETERAUN

Azalarazten du tempo bikoitzean egindako flow bat, eta hau ez du ohikoena taldeak. "One shot" estilora grabatu zuten Miarrizten (Lapurdi) eta estreinakoan atera zitzaigun. Gure kutunetakoa bat da.

¿CÓMO?

Bideo udatiarra da. Soinua eta bideoa Kulto Kultibo taldearen etxea grabatu genuen, "raparen etxea" izenarekin ezagutzen du jendeak.

NY

Pecak AEBetan grabatu zuen Setarekin batera elkarrekin egindako bidaian, abestia 90eko hamarkadako rap hutsada, Setaren instrumental eta scrachekin.

MAYBE

Beste "one shot" bat, oraingoan Samuk egindakoa, bideoa Tío Del Merchan-ek grabatu zuen Go Pro eta egonkorgailu batekin.

POISON

Samu eta Pinzelen abestia eta nabari da bi estiloen desberdintasuna. Izenburuak argitzen zu zertaz doan abestia.

ORIGINAL

Hendaiako (Lapurdi) trenbidean grabatu dugu rap ilun hau. Bideoan gure lagunmina den Iratxo ageri da, bideoak irauten duen tartean kantuaren inguruko graffitia egin zigun.

DALE

Samu Setarekin batera Puerto Ricora joandako bidaia gogoangarrian grabatutakoa da.

YA LO SÉ

Pecaren barne-barneko abestia da, gogorra, irmoa eta latza.

NIRVANA TOTAL

Abesti serioa da, reggae eta rap erritmoekin benetako egiak esaten ari gara.

WHAT A FUCK

Pecak flow adarjotzaileena eskainiko digu eta, berriro ere, "one shot" erara grabatu dugu bideoa Irungo Renfeko tren geltoki zaharrean.

REBELDES KON KAUSA

Samuk eta Pecak emetsei buruz hitz egiten dute, lana gogor eginez gero lortzea dagoela norberak desio edo nahi duena, eta jendea nahi duena esan dezala, guri bost. Hondarribiko Guardia Zibilaren kuartel zaharrean grabatu dugu bideoa.

ORIGINAL GYAL

Samuk erabaki du emakumeei buruzko abesti bat egitea, emakumeak lagundu eta aintzat hartuko duen abestia sortu du neska-laguna oinarri hartuta, ordu erdian prest eduki du abestia.

KONEKTEN

Pecak eta Pinzelek "old school" estiloko rap hutsa sortu dute.

SE VA A ACABAR EL MUNDO

Diskoko kanturik gogorrenetarikoa da. Gobernuak egiten dituzten injustiziaz hitz egiten du eta akats horiek guztiak nola pairatzen dituzten herritarrek. Aitor Txabarri lagunak Palestinan egindako argazkietan oinarritutako lyric-bideo bat du abestiak.

DEMASIADO COMPLICADO

Samuk idatzi zuen lanetik bidali zutenean. Pariseko kaleetan barna egin genuen bideoa, egun euritsu eta tristeza kantuarekin bat eginaz.

WAKE UP

Kulto Kultibo taldearen alderdirik basatiena dakargu Setak 60 hamarkadako sample batekin egindako instrumentalaren laguntzarekin. Badirudi kantuak antzinako garaietara garamatzala.

BUENA CONDUCTO

Rap lehorra eta zakarra. Bideoan Samuk eta Pekak gainetik kenduko dute hilotz, eta lagun onak izatearen garrantzia aldarrikatuko dute.

A MÍ ME DA IGUAL

Taldearen ibilbideari buruzko abesti sakona da eta bizi izandakoa rapeatuko dute. Andaluziako birarako alokatutako karabanan grabatu genuen bideoa.

MADRES

Garden diogu, bereziki eta bakarrik munduko amei eskainitako abestia dela, gurei batez ere.

NADA NOS FRENA

Pecak grabatutako abestia AEBetara joan zenean Setarekin batera. Chinatownen egin nuen bideoa eta bikain uztartuta dago abestiarekin.

SEGUIMOS VIVOS

Vicious Vip-en eskutik datorkigun instrumentala da, underground estilora. Rap Rapunikoren kontuarekin elkarlanean egindakoa da.

Peca (mc)
Samu (mc)
Seta (dj)
Aimar (soinu teknikaria)

ritxi aizpuru + kulto kultibo
(2019ko martxoaren 13a)